

'Neskatilak' bilduma plazaratu du Erein argitaletxeak; emakumezko idazle eta ilustratzaileek sortutako zortzi ipuinekin estreinatu dute liburu sorta. TESTUA J. Imaz

'Protagonetskak'



'Gabe gabe' ipuineko protagonista. ILUSTRAZIOA: MARIMAR AGIRRE

IRAKURTZEAREN amorruz armairuan sartuta zegoen bitartean, *traperok* eraman duten neska; azokako lapurrak antzeman dituzten neskatxak; Mikel izan ordez Mikaela izan nahi duen haurra; lagunekin baserrian asteburua pasatzera joandako Nekane... Lau istorio horiek osatzen dute, beste laurekin batera, Erein argitaletxeak atzo Donostian aurkeztu zuen *Neskatilak* bildumako lehen emaitza: zortzina emakume idazle eta ilustratzaileek prestatutako sorta.

Liburuxka horietako protagonista neska badiara ere, bilduma zortzi eta hamar urte bitarteko neska mutilentzat zuzendu dutela jakinarazi zuen Iñaki Aldekoa editoreak, hau da, "denentzat". Aspaldi sortutako ideia bada ere, "atzeratzen" joan den proiektua dela aitortu zuen. "Emakumeen partaidetza erabatekoa nahita bilatutako gauza bada ere, ideia modu naturalean eratu zen", azpimarratu zuen Aldekoa.

Neskatilak osatzeko garaian, beren bizitzako "esperientzia edo pasadizo bat" garatzeko eskatu zien Ereinek autoreei. Erronka horri eutsi zioten zortzina idazle eta ilus-

tratzaleek. Hurrenez hurren, Enkarni Genua eta Karmele Cruzek *Mahatsak eta neskatilak ondu zireneko uda* idatzi zuten; Yolanda Arrietak eta Eider Eibarrek, *Nitaz ahaztu dira*; Ana Urkizak eta Aitziber Alonsok, *Bidegorriko festa*; Alaitz Olaizola eta Idoia Beratarbidek, *Mikel eta Mikaela*; Aitziber Etxeberría eta Concetta Probanzak, *Lapurrak dabilta azokan*; Aizpea Goenagak eta Iñintza Larrañagak, *Ramoni Ramoni*; Arraté Egaña eta Marimar Agirrek, *Gabe gabe*; eta Leire Bilbao eta Estibalitz Jalonek *Armairu barruan ipuinak irakurtzen zituen neska*.

Gaiak asko dira eta askotarikoak, "esperientzia bezainbat istorio" daudelako, Aldekoaren iritziz. "Beldurra, bilaketa eta emozioa bezalako sentsazioak jasotzen dituzte", azaldu zuen editoreak. Hasierako sortan zortzi liburu argitaratu badi-


tuzte ere (bederatzi euro inguru bakoitzak), aurreantzean titulu gehiago kaleratzeko aukera irekita utzi zuen Erein argitaletxe arduradunak.

KORAPILO DEIGARRIA Handitan Mikaela izan

Aizpea Goenaga antzezle eta idazleak *Ramoni Ramoni* lana aurkeztu du *Neskatilak* bilduman. Bere ustez, ahalegin "interesgarria" da ekimena, "emakumeak protagonista dituen literatura egitera behartzen" dituelako sortzaileak. Belaunaldien arteko transmisioa aipatu zuen, baita ere, garai batean amonek bilobei kontatzen zizkieten kontuak gogoratu.

Mikel eta Mikaela liburuan Alaitz Olaizolak askatzen duen korapiloa ere deigarria da. Izan ere, Mikel da protagonista, mutil bat. "Bizikletan ibiltzea eta futboleko jokatzeko gustatzen zaio. Baina baserrian zoriontsu da, bertan ezkutatzen baitu kutxa bat. Izkutuan, amonaren arropak jatzten ditu eta apain apain jartzen da. Aitak handitan zer izan nahi duen galdetzen diotenean, berak Mikaela izan nahi duela erantzuten dio", laburbildu zuen idazleak.

Aurrerantzean 'Neskatila' bilduman ale gehiago argitaratzeko aukera irekita dauka Ereinek



'Neskatilak' bildumako lehen zortzi liburuetakoko sortzaileak, atzo Donostian egindako aurkezpenean. ARGAZKIA: RUBEN PLAZA

Las bodas de plata del festival barroco de Ordizia y Ataun atraen a Tegliavini y los hermanos Hantaï

EL CERTAMEN PONE EN VALOR EL PATRIMONIO ORGANÍSTICO GUIPUZCOANO, "ÚNICO EN EUROPA", DESTACA SOLUPE

DONOSTIA. El veterano organista italiano Luigi Ferdinando Tegliavini, los hermanos Jérôme y Pierre Hantaï y el grupo Prometeo de la Orquesta Barroca de Sevilla son algunos de los protagonistas de la 25 edición del festival *Barroco aire* que se celebrará este mes en las iglesias de Ataun y Ordizia.

El ciclo, organizado por la Diputación y los ayuntamientos de ambas localidades, fue presentado ayer en Donostia por el director

foral de Promoción y Difusión Cultural, Haritz Solupe, quien destacó la consolidación de un certamen que cumple este año sus "bodas de plata" y que ha puesto en valor el patrimonio organístico guipuzcoano, "único en Europa".

Esta cita clásica del panorama musical guipuzcoano ofrecerá tanto al público especializado como al profano el sonido barroco en estado puro, este año con obras de compositores conocidos como Bach, Haendel o Vivaldi y de otros más cercanos como Mateu Fletxa *El Viejo*, Marin Marais, Antonio de Cabezón o Diego Fernández de Huete.

La iglesia de San Martín de Ataun acogerá un único concierto, el día 19, a cargo de Tegliavini, el gran

organista de 81 años miembro honorífico del Real Colegio de Organistas de Londres.

Obras de Storage, Cabezón, Valente, De Huete o Pasquini conforman el programa elegido por Tegliavini, quien pondrá sus virtuosas manos sobre el magnífico órgano de Ataun, construido en 1761, en pleno apogeo del denominado *barroco ibérico*, y restaurado en 1996.

GARMENDIA En Ordizia, los recitales se celebrarán los cuatro sábados de este mes en la iglesia parroquial, con el cuarteto La Colombina como primer invitado, el día 6, y un repertorio *a capella* con piezas de Pere Albert Vila y Bertomeu Cárceres.

El día 13, el templo ordiziarra aco-

gerá la actuación de los hermanos Hantaï, en esta ocasión dos de los tres que habitualmente conforman el prestigioso trío francés, Pierre al clavecín y Jérôme a la viola de gamba, quienes interpretarán composiciones de Marin Marais y Johann Sebastian Bach.

La soprano de Legorreta Ainhoa Garmendia, acompañada al piano por Itziar Barredo, protagonizará el recital del sábado 20 con un repertorio integrado por obras de Vivaldi, Pergolesi y Haendel. El ciclo lo cerrarán el día 27 la soprano catalana María Hinojosa y el grupo de cámara Prometeo de la Orquesta Barroca de Sevilla, bajo la dirección del concertino Pedro Gandía Martín. >EFE

BARROCO AIRE

● **Ataun.** La iglesia de San Martín de Ataun acogerá un único concierto, el día 19, a cargo de Luigi Ferdinando Tegliavini. El programa estará formado por obras de Storage, Cabezón, Valente, De Huete o Pasquini. El órgano de Ataun se construyó en 1761 y fue restaurado en 1996.

● **Ordizia.** El cuarteto La Colombina será el primer invitado, el día 6, con un repertorio *a capella* a base de piezas de Pere Albert Vila y Bertomeu Cárceres. El día 13 será el turno de dos de los tres hermanos Hantaï, quienes interpretarán composiciones de Marin Marais y Johann Sebastian Bach. El día 20, la soprano legorretarra Ainhoa Garmendia, acompañada al piano por Itziar Barredo, ofrecerá un repertorio integrado por obras de Vivaldi, Pergolesi y Haendel. El ciclo lo cerrarán el día 27 la soprano catalana María Hinojosa y el grupo de cámara Prometeo de la Orquesta Barroca de Sevilla (OBSO).